



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2023ko maiatzaren 2ko bilkura

Bi mila eta hogeita hiruko maiatzaren 2an, arratseko zortzian, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÏAFFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : CASIRIAIN Eliena, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, HEGUY Antton, GOICOECHEA Iñaki, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÏAFFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne.
Bilkurako Idazkari Izendatua izan da : CASIRIAIN Eliena.

Deialdiaren eguna : 2023ko apirilaren 28a
Afitxatze eguna : 2023ko apirilaren 28a

6. ERABAKIA: LANDA EREMUEK ELEKTRIFIKATZEA: « RENOVATION EP (SDEPA) » PROGRAMA – 2021eko ARRABERRITZEAK – PROIEKTUAREN ETA HERRIAREN ZATIAREN FINANTZAZIOAREN ONARPENA – 21EP089 AFERA

(9.1 NOMENKLATURA)

Auzapezak Herri Biltzarrari jakinarazi dio Territoire d'Energie des Pyrénées Atlantiques-ri eskatu diola honako lanen ikerketa abiatzea: 1. postuaren «Purgua» azkartzeari loturiko argiteria publikoa- Enedis arazo fixa.

TE64-ko lehendakariak herriari adierazi dio zenbatekoak izanen litezkeen obren gastuak, eta Hazparneko COREBA enpresak egingen dituela.

Auzapezak zehaztu du lan horiek «Rénovation EP (SDEPA) – Rénovation 2021» Landa Eremuaren Elektrifikatzeko Programara aurkeziuko direla eta Herri Biltzarrari proposatu dio gastua onartzea eta lanen diruziatzea bozkatzea.

Herri Biltzarrek, Auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidaturik,

- **ERABAKI DU**, lehenago aipatu lanen eginaraztea, eta Territoire d'Energie des Pyrénées-Atlantiques erakundeari agindu dio lan horien eginaraztea,
- **ONARTU DITU** lanen zenbatekoa eta egin beharreko gastua, honelako xehetasunekin:

- Lanen zenbatekoa zergak barne 33 424,27 €
- Proiektu sustatzaileari aholkularitza, obra kudeantza eta ezustekoak 3 342,43 €
- TE64 ren kudeaketa gastuak 1 392,68 €

OROTARA

38 159,38 €

- **ONARTU DU**, ekintzaren finantzazio aurrekontu plana, honelako xehetasunekin:

- Partzergoaren parte hartzea 21 000,00 €
- FCTVA (TE 64-k beirreskuratuko duena) 6 031,21 €
- Herriak fúntis libreekin ordainduko dituen lanak 9 735,49 €
- Herriak fúntis libreekin ordainduko dituen kudeaketa gastuak 1 392,68 €

OROTARA

38 159,38 €

Herriak zehazki ordaindu behariko duena lanen behin betiko kostua ukan eta jakinen da.

Gainera, herriak bere parte hartzea fúntis libreetatik hartzen badu, TE64-k aurrerakinak eskatzen ahalko dizkio, egin dituen lanen arabera.

- **ONARTU DU**, herriaren jabego pribatuan balizko pasaia eskubide baten ematea, eta aukera badenean TE64ri baimena ematea energiaren aurrezte egiaztagirien eskuratzeko

- Honako erabakia legezkotasun kontrolera **IGORRI DU**.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 13

Balizko boz kopurua : 13

ALDE : 14

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineko egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEN, 2023ko maiatzaren 2an
Auzapeza,
Jean-Marc OÏAFFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2023/05/11an publikatu edo notifikatu ondoin,
Eta Prefeituran pausatuta ondoin 2023/05/11an.